

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak ehizaren eta arrantzaren inguruko arauen testu berria onetsi du sektorearekin adostu ondoren

Aldaketa nagusia ehiza-barrutietan basozaina izateko betebeharra 2013ko otsailera atzeratzea da

Miércoles, 01 de febrero de 2012

Nafarroako Gobernuak 2007an egindako Ehitza eta Arrantzari buruzko Arauak partzialki aldatzea onetsi du gaur, arauetako artikuluko batzuk modu praktikoan aplikatzeko orduan antzeman diren zailtasunei erantzuna emateko eta sektorearen eskari batzuk gehitzeko. Nafarroako Ingurumen Kontseiluak eta Ehizaren Batzorde Aholkulariak onetsitako foru-dekretu berriaren aldeko txostena egin zuten.

Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko 17/2005 Foru Legeak garatzen duen Araudiaren testu berriaren berritasun nagusia ehiztarien elkarteek administrazioan mahaigaineratutako eskaria da: 2013ko otsailaren 1era arte atzeratzea Foru Erkidegoko ehiza-barrutietan basozaina izateko betebeharra. Basozaina isileko arrantzale eta ehiztariak saihestu eta zaintzarekin loturiko egitekoez arduratuko da eta, batez ere, barrutietan populazio zinegetikoak eta horien habitatak kudeatzeko funtsezko bitartekoa izango da.

Testu berriak basozaina izateko egin eta bete beharreko zeregin eta baldintzak zehazten ditu, eta barrutien titularrek nahitaezko inbertsioaren zati bat habitata hobetzeko baliatu ahal izateko aukera ezartzen du (barrutia aprobetxatzearen ondorioz lortutako diru-sarreraren % 25 gutxienez) basozaintza kontratatzean. Horrek ehiztarien elkartearen ekonomiak eragin txikiagoa izango du.

Beste aldaketa batzuk

aur Gobernuak onetsi dituen arrantzari eta ehizari buruzko araudian barne hartutako beste aldaketa batzuk, laburtuta:

- **Falkoneria:** Ehiza mota hau baimenduko da Antolamendu Planean hori adierazten duten barrutietan dauden askatutako animaliak ehizatzen lekuetan; hartara, egunero entrenamenduak egin ahal izango dira.

- **Nafarroan ehizatzen lizentziak ematea:** Orain arte, beste autonomia erkidego edo herrialde bateko lizentzia edukitzeak eskatzailearen gaitasuna egiaztatzen balio zuen. Hemendik aurrera, horrez gain, autonomia erkidego edo herrialde horietan lizentzia lortzeko behar den ezagutza Nafarroan lehen lizentzia izapidetzen duten eskatzaile berriei eskatzen zaienaren antzekoa dela frogatu beharko da, hau da, Foru Erkidegoan egiten den ehiztarien azterketaren antzeko gaitasun-probak gainditu dituztela.

- Barrutirik gabeko ehiztari nafarrentzako gonbitak, aldi baterako baimenak eta erreserbak **tokiko ehiztarien elkarteei zuzenean esleituriko esparruetan**. Tokiko erakundeek esleipen zuzenak egiteko bete beharreko baldintzak arautu dira. Txartelen % 3 barrutirik ez duten ehiztari nafarrentzat gorde eta kanpoko ehiztariantzako prezioa ezarriko da (ez da izango bertakoek ordaintzen dutenaren bikoitza baino gehiago) eta, pleguetan hala ezarri gero, egun baterako izendun gonbitak emango dira (barrutiko ehiztarien % 3aren kopurua baliokidea). Baimena izango dute, baita ere, untxia edo basurdea ehizatzeko aldi baterako baimenak emateko, kalteengatik barrutirako baimen berezia eskatzen denean.

- **Adingabeak eta arrantza**: Arrantzarako lizentzia lortu nahi duten adingabeek Nortasun Agiri Nazionala (NAN) beharko dute. Baldintza hori kontrolerako prozesuetan eta ehiza eta arrantzarako lizentziak emateko orduan erabiltzen diren datu-base informatizatuen eskakizunengatik ezarri da.

Gainera, araudi berriak honako gai hauek ere jasotzen ditu: 2.000 hektarea baino gutxiagoko barrutien eraketa baimentzeko salbuespena, zenbaketa horretarako azalera nola neurtu behar den zehazten du, barrutietako seinaleen inguruko guztiaren aldaketa arautzen du (txakurrak larreratzeko lekuak, askatutako animaliak ehizatzeko guneak, aterpetxeak, erreserbak, etab.) eta hegazti migratzaileei tiro egiteko postuetan eduki daitezkeen arma kopurua argitu da (ehiztari bakoitzeko bat eta tirokatzeko postu bakoitzeko hiru), baita usategiak, birigarroen lekuak eta tiro egiteko txabolen erabilera ere.